



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 9a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan. Socialistas de Navarra parlamentutaldeak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legeko 16. artikulua dela-eta diru-laguntza izendun gisa jasotzekoak dituzten zenbatekoei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2015erako ordutegi ofiziala (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2014ko abenduaren 16an eta 17an egin-dako bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administratiboen agirietan klausula sozialak sartzeko

ZIOEN AZALPENA

Estatu sozial batean botere publikoen jardunean aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen garapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.

Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan-merkatuan. Langabezia hazi egin da eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.

Horrenbestez, Parlamentu honi dagokio Nafarroako Foru Komunitateko lan-merkatuari ahal den egonkortasun handiena emateko formulak bilatzen saiatzea. Hain zuzen, kontratazio publikoa jardue-ra ekonomiko garrantzitsua da, eta beronetan

botere publikoek esku har dezakete, kontratuetarako gutxieneko baldintza batzuk ezarriz. Enpresa pribatuetan jardunda ere, langile askok dihardu zeharka sektore publikorako, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen babesean eginiko kontratazioen bidez.

Lege hori da hain zuzen, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea alegia, izaera sozialeko eskakizun xeheak sartzeko aukera ematen duten mekanismoak jasotzen dituen.

Beraz, beharrezko jotzen dugu Nafarroako Sektore Publikoan kontratista diren enpresentzat lan egiten duten beharginengan eragin zuzena duten bi arazo motari heltzeko mekanismoak ezartzea. Batetik, aplika daitezkeen lan-baldintzei buruzko segurtasun eza; hau bideratzeko gutxieneko baldintza gisa finkatzen dira -nahikoak eta bidezkoak direla uste izanik- enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken hitzarmen sektorialekoak. Bestetik, enpleguaren ezegonkortasuna, izan ere, langile askoren itxaropen laborala lotuta baitago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; honi aurre egiteko exijentzia bat sartzen da, enplegua mantentzea enpresa kontratista aldatuagatik ere.

Horretarako, kontratu publikoa egiteko prozesuan derrigor bete beharreko eduki gisa finkatzen da izaera sozialeko eskakizun jakin batzuk sartzeari. Betebehar hau Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa parte den esleipen-prozesuetako baldintza-agirien bidez gauzatuko da. Baldintza-agiri horietan, derrigor bete beharreko izaera sozialeko eskakizun gisa finkatuko dira gutxienez sektoreko esparru txikieneko hitzarmen probintzialeko baldintzak errespetatzea, eta langileak subrogatzea enpresa kontratista aldatzen denean, nahiz kontratistak bere jarduera beste batekin azpikontratitzen duenean.

Aipatutako klausula sozialak urratu direla egiaztatuz gero, Administrazioak kontratua eteteko aukera izango du.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak (KENDUTA)

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da izaera sozialeko zenbait eskakizun ezartzea, zeinak, ezarri beharreko edo ezar litezkeen beste eskakizun batzuk gorabehera, nahitaez sartu beharrekoak izanen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa osatzen duten entitateen kontratazio organoek egiten dituzten kontratazio-prozesuetan.”

2. artikulua. Aplikazio-esparru objektiboa.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren entitateek eginiko kontratazio guztiei, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 3. artikuluan baitaude araututa.”

Artikulu berria. Aldatu egin da Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua. Honako testua izanen du:

“49 artikulua. Kontratuak gauzatzeari buruzko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Administrazio klausula partikularren agirietan, betekizun sozial edo ingurumenaren arloko zehatzak ezarri ahalko dira, kontratua exekutatzeke moduari buruzkoak eta haren ezaugarrien arabera egokituak. Esate baterako, ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; sexuen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak integratzeko neurriak hartzea; legez ezarritako kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeke; eta antzeko beste batzuk.

2. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo esleipen irizpideak izan, eta halaber, ezin izanen dute bereizkeriarik eragin, eta, horrela, kontratua burutzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

3. Nolanahi ere, klausula administratiboan agirietan, honakoei buruzko ohartarazpenak jaso beharko dira:

a) Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta lan-osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikiena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du esleipen-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko hitzarmen sektorialaren aplikaziotik heldu den kostuari; jasotako soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi gizarte segurantzako kostuak baino txikiagoak.

c) Zerbitzuen emakidaren kasuan, kontratazioa, kasua bada, gutxienik hiru hileko antzintasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean egingen da, beste enpresa batekoak izanagatik ere, kontratuko jarduera egiten ari badira; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta gertatzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez. Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, hirugarren enpresa horrek jarduera hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharri dagokienez; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta gertatzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.

4. Baldin eta 1. eta 2. idatz-zatietan jasotako eskakizunak ez badira betetzen, kontratazio-organok ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea, kontratistaren ezbetetze erruzkoagatik, eta kontratista bi urterako ezgaitzea foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan parte hartzeko.

b) Kontratuaren gauzatzeari eustea, kontratuaren prezioaren % 20ko zigorra ezarrita.

5. Kontratistak ez baditu betetzen artikulu honetako 3. idatz-zatian ezarritakoaren ondorioz kontratazio-agirietan sartzen diren klausula sozialak, kontratazio-organok ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea eta kontratista Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin kontratatzeke ezgaitzea 5 urterako.

b) Kontratua kontratista berak exekutatzeko jarrai dezala, baina kontratuaren prezioaren % 35eko zigorra ezarrita.

Kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, kasuan kasuko administrazioak kontratuaren falta den zatia lizitazioan bigarren gelditu zen enpresari esleitzen ahalko dio, edo, enpresa horrek uko egingen badi, sailkapenean hurrengoak izan zirenei, sailkapen-ordenan.

3. artikulua. (KENDUTA)

II. KAPITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren kontratuak gutxieneko klausula sozialak (KENDUTA)

4. artikulua. (KENDUTA)

5. artikulua. (KENDUTA)

III. KAPITULUA

Klausula sozialak urratzea (KENDUTA)

6. artikulua. (KENDUTA)

Artikulu berria. Esleipenen gardentasun publiko eta instituzionala

Lizitazio eta kontratazio prozesuetako klausula administratiboen agirietan, adierazpen bat jasoko da, zeinaren bidez lehiakideek beren borondatez onartuko duten gardentasun instituzionala emanen dietela lizitazio-, esleipen- eta exekuzio-prozesutik heldutako datu guztiei, prozesu hori amaitu arteko datu guztiei alegia.

Xedapen iragankorra. Foru lege hau ez da aplikatuko dagoeneko esleituta dauden kontratazioetan, ezta bera indarrean sartu aurretik tramitatzeko ari zirenetan ere.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamuneko hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko elehun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2014ko maiatzaren 8an, Foru Parlamentuak maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen. Izan ere, lege hori legegintzaldi honetan zehar eskatu izan du parlamentu-talde sozialistak, eta legegintza honetan egin den kultur arloko legerik garrantzitsuena da, gure ustez.

Legearen xedapen gehigarrietan hiru eta sei hilabete bitarteko epeak ezartzen dira zenbait neurri abian jartzeko. Neurri horien artean daude

Nafarroako Kultura Kontseiluari eta haren kontseilukideen berritzeari buruzko araudia egokitzea.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak, Parlamentu honetako kasuko batzordean 2014ko abenduaren 12an egindako agerraldian, adierazi zuen, besteak beste, Mezenasgoari buruzko Foru Legeko seigarren xedapen gehigarriaren aginduari buruz –Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudia hiru hilabete epean egokitzea–, “ezen hari buruzko araudia berriki onetsi dela, azaroaren 13ko 68/2013 Foru Dekretuaren bidez”. Argi dago foru dekretu hori legearen onespina bera baino lehenagokoa dela, eta, horrenbestez, lege hori argiro urratzen ari dela.

Aipatutako seigarren xedapen gehigarriko beste alderdiak dio “Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaketa berriak bilatu behar duela Nafarroan presente dauden sektore desberdinek parte hartu eta laguntza eman dezatela”; errealitatea, ordea, da organo hori, gaur den egunean, berritu gabe dagoela.

Ez da gure asmoa egungo kontseilukideen gaitasuna zalantzan jartzea, baina legea bete beharrek da, eta Gobernua da hura betetzeko betebeharra duen lehenengoa.

Hori guztia dela eta, eta nabarmena denez legea ez dela betetzen ari,

Honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inolako aitzakiarik gabe bete dezan Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legean ezarritakoa eta, horren indarrez, berehala egin dezan Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat, eta berritu ditzan haren kideak, Nafarroan presen-

te dauden sektore desberdinek parte hartu eta laguntza ematearen irizpideei jarraituz.

Iruñean, 2014ko abenduaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legeko 16. artikulua dela-eta diru-laguntza izendun gisa jasotzekoak dituzten zenbatekoei buruzkoa.**BIKENDI BAREA Aiestaran Jaunak Egin du**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legeko 16. artikulua dela-eta diru-laguntza izendun gisa jasotzekoak dituzten zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako idatzizko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legeak, "Sustapena eta finantzaketa" izenburua duen 16. artikuluan, honakoa dio:

16. artikulua. Sustapena eta finantzaketa

"1. Foru lege honek araututako parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du, diru-laguntza izendun gisakoa. Kontusail horren xedea izanen dira ordezkartasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeak, alde batera utzita erakunde horiek, esparru ekonomiko eta sozialeko interes orokorreko erakunde gisa, beren jarduera sustatzeko jasotzen dituzten diru-laguntzak".

Idatzizko galdera:

1. Zein zenbateko erabiliko dira, erakundearen arabera xehakatuak, diru-laguntza izendun gisa erabiliko diren kontusailen, ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakunde-ei ordaintzeko, azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen 16. artikulua indarrez?

Iruñean, 2014ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2015erako ordutegi ofiziala.

Kontuen Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

“Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehena. Xedatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2015. urterako ordutegi ofiziala 08:30etik 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea ezen, Kontuen Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbat, igande eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren abenduaren 29ko 237/2014 Foru Aginduan ezarritako jai-egunetan, bai eta uztailaren 6an, 8an, 9an, 10ean, 13an eta 14an ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei igortzea eta zera agintzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin”

Iruñean, 2014ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas